

# **Maiatzaren 8an ospatuko da Gipuzkoako Erroten Egunaren lehen edizioa**

***Maiatzaren 8an, igandea, Gipuzkoako Erroten Eguna ospatuko da lehen aldiz, eta horrekin batera, ondare-elementu horien inguruko jarduera programa zabala egingo da, horiek balioan jarri eta jendeari ezagutarazteko***

Errotak gure ondare historiko, teknologiko, antropologiko eta etnografikoaren parte dira. Mende askotan zehar garrantzi handia izan dute Gipuzkoako garapen sozial, ekonomiko eta industrialean. Lurraldearen antolaketaren eta giza jardueraren adierazpenik esanguratsuenetako bat dira, ondare adierazgarria, gizakiak bere ingurunearekin dituen harremanei buruz hitz egiten duena, eta gure kulturaren eta historiaren parte diren iraganeko bizimoduei buruz hitz egiten duena.

Gipuzkoako Erroten Eguna ospatzeko ekimena Ihurrita Errota elkarteak bultzatu du, eta lurraldeko hainbat elkarte, udalerrri eta eragileren laguntza izan du, besteak beste, San Telmo Museoarena eta Gipuzkoako Foru Aldundiarena. Jendeari errotak hobeto ezagutzeko eta ondare-elementu horri lotutako alderdi ezberdinak ulertzeko aukera ematea du helburu: historia eta kultura, ingurumena, teknologia, energia desberdinen erabilera eta gure gizarteak eta paisaiak izan dituzten aldaketak.

Lurraldearen orografiari eta klima euritsuari esker, erroteren industria garatu da, mendeetan zehar energia hidraulikoa baliatzen baitzuen komunitateari zerbitzua ematen zion hainbat zereal mota ehotzeko. Arto amerikarraren etorrerak eta gure luraren ezaugarrietara ondo egokitzeak euskal geografiako bazter guztietara zabaldu ziren erroten kopurua biderkatu zuen, eta hainbat mendetan zehar beren jarduerari eutsi zioten, pixkanaka bigarren maila batean geratzen joan ziren arte.

Gaur egungo erroten panoramak ez du zerikusirik duela mende batzuetako egoerarekin, ezta Antxon Agirre Sorondok duela 40 urte *Tratado de Molinología* lanean bildutako 600 errota baino gehiagorekin ere. Iraganeko garrantzi ekonomikoa galdua, errotek ondare balio berria hartzen dute, bizimodu bati eta gizarte baten jakintzen transmisioari estuki lotutako jarduera batena.

40 jarduera baino gehiagok publiko guztiarentzako egitaraua osatzen dute, besteak beste, errotagintza topaketa, hitzaldiak, bisita gidatuak, haur eta familientzako tailerrak, martxak, erromeriak, ate irekien egunak... Zehazki, Aia, Altzo, Amezketa, Antzuola, Arama, Asteasu, Ataun, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Beizama, Bergara, Deba, Donostia, Eibar, Errenteria, Eskoriatza, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Irun, Larraul, Legazpi, Mutiloa, Oiartzun, Oñati, Ormaiztegi, Tolosa, Usurbil, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zizurkil eta Zumaian egingo dira jarduerak.

Apirilaren 29an hasiko dira Gordailuan bisita gidatu batekin eta Igartzako errotan zabalduko den erakusketarekin, eta apirilaren 30a egun seinalatuetakoa bat izango da, Larraulen egingo den errotagintza topaketarekin, non goizean zehar edizio honetako parte hartzaileak bilduko diren. Maiatzaren 7an eta batez ere 8an biltzen dira proposamen gehienak, eta maiatzeko hurrengo asteburuetan jarraituko dute.

## **El 8 de mayo se celebrará la primera edición del Día de los Molinos de Gipuzkoa**

***El domingo 8 de mayo se celebrará por primera vez el Día de los Molinos de Gipuzkoa, al que acompaña un extenso programa de actividades en torno a estos elementos patrimoniales con el objetivo de ponerlos en valor y darlos a conocer al público***

Los molinos forman parte de nuestro patrimonio histórico, tecnológico, antropológico y etnográfico. A lo largo de muchos siglos han tenido una gran importancia en el desarrollo social, económico e industrial de Gipuzkoa. Constituyen una de las expresiones más significativas de la organización del territorio y de la actividad humana, un patrimonio revelador que habla de las relaciones del ser humano con su entorno, y de las formas de vivir del pasado que forman parte de nuestra cultura y de nuestra historia.

La iniciativa de celebrar el Día de los Molinos de Gipuzkoa está impulsada por la asociación **Ihurrita Errota**, y cuenta con la colaboración de diversas asociaciones, municipios y agentes del territorio, entre ellos el Museo San Telmo y la Diputación Foral de Gipuzkoa. Tiene como objetivo brindar al público la oportunidad de conocer mejor los molinos y comprender los diferentes aspectos vinculados a este elemento patrimonial: la historia y cultura, el medio ambiente, la tecnología, la utilización de energías diferentes y los cambios que han experimentado nuestra sociedad y el paisaje.

La orografía del territorio y el clima lluviosa ha propiciado el desarrollo de la industria molinera que durante siglos, aprovechaba la energía hidráulica para moler diversos tipos de cereales que daba servicio a la comunidad. La llegada del maíz americano y su buena adaptación a las características de nuestra tierra multiplicó el número de molinos que se extendieron por todos los rincones de la geografía vasca y mantuvieron su actividad durante varios siglos, hasta que poco a poco han sido relegados a un segundo plano.

El panorama molinero actual poco tiene que ver con la situación de hace siglos, ni con los más de 600 molinos registrados por Antxón Agirre Sorondo en su Tratado de Molinología hace 40 años. Perdida la relevancia económica de tiempos pasados, los molinos adquieren un nuevo valor patrimonial, el de una actividad estrechamente ligada a una forma de vida y a la transmisión de saberes de una sociedad

Más de 40 actividades forman un programa para todos los públicos en el que se incluyen un encuentro de molinología, conferencias, visitas guiadas, talleres infantiles y familiares, marchas, romerías, días de puertas abiertas... Concretamente las actividades tendrán lugar en las localidades de Aia, Altzo, Amezketta, Antzuola, Arama, Asteasu, Ataun, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Beizama, Bergara, Deba, Donostia, Eibar, Errenteria, Eskoriatza, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Irun,

Larraul, Legazpi, Mutiloa, Oiartzun, Oñati, Ormaiztegi, Tolosa, Usurbil, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zizurkil y Zumaia.

Comenzarán el 29 de abril con una visita guiada en Gordailua y con la apertura de una exposición en el molino de Igartza, y el 30 de abril será uno de los días señalados, con la celebración de un encuentro de molinología en Larraul, donde a lo largo de la mañana se reunirán las personas que toman parte en esta edición. El 7 y sobre todo el 8 de mayo se concentran la mayor parte de las propuestas, que continuarán los siguientes fines de semana de mayo.

# GIPUZKOAKO ERROTEN EGUNA 2022

## DIA DE LOS MOLINOS DE GIPUZKOA 2022

**Jarduera programa:** argibide gehiago eta izen-ematerako antolatzaileen kontaktuak jarri ditugu.

**Programa de actividades:** para más información e inscripciones se facilitan los contactos de cada organizador.

**2022.04.29**

**GORDAILUA. Irun (943 55 55 20 / gordailua@gipuzkoa.eus)**

Bisita gidatua / Visita guiada

17:00 cas: "Opila: harina de trigo, agua al molino".

18:15 eus: "Opila: gariak irina, irinak errota"

**2022.04.29 – 2022.06.26**

**IGARTZAKO ERROTA, Beasain (943 08 77 98 / igartza@beasain.eus)**

Erakusketa / Exposición

Astelehena-Ostirala: 18h – 20h

Larunbata-Igandea: 11h – 14h eta 18h – 20h

**2022.04.30**

**GIPUZKOAKO ERROTAGINTZA TOPAKETA. Larraul (943 69 30 42 / kultura@larraul.eus).**

Gipuzkoako Errotagintza Topaketa / Encuentro de Molinología de Gipuzkoa

10:00. Ongi etorria

10:15. Larraulgo ondarearen aurkezpena

10:30. "Gipuzkoako errotak: ondareari begirada bat"

11:00. M8 Gipuzkoako Erroten Egunari buruzko argibideak

11:45. Hamaiketakoa

12:30. Txuringain Errotara bisita

**2022.05.03**

**BERGARAKO ERROTAK/MOLINOS DE BERGARA, Bergara (943 77 91 00)**

Hitzaldia/Conferencia, gazteleraz, 19:00, Bergarako Seminarixoan. Hizlaria: Patxi Larrañaga.

**SAN TELMO MUSEOA, Donostia (www.santelmomuseoa.eus)**

Hitzaldia/Charla, 19:00. "Gipuzkoako errotak. Atzo eta gaur", Alvaro Aragon, Alex Roteta

**2022.05.05**

**AKIÑABEI ERROTA, Antzuola (638 187061 / iturbe55@gmail.com)**

Martxa gidatua (jubilatua) / Marcha guiada (jubilados/as). 9:30.

**2022.05.06**

**IGARATXO ETA SARASOLAKO ERROTAK, Beizama (943 81 63 38 / udala@beizama.eus)**

Hitzaldia/Conferencia, 18:00, Sergio Diez eta Javi Castro-k Beizamako Igaratxo eta Sarasolako erroten inguruan egin duten azterketa lanaren azalpena emango dute.

**2022.05.07**

**AKIÑABEI ERROTA, Antzuola (638 187061 / iturbe55@gmail.com)**

Bisita gidatua / Visita guiada. 10:00 – 14:00.

**NARBAIZA BOLU ETA ELORZA BOLU, Bergara (943 77 91 00)**

Bisita gidatua / Visita guiada. 11:00 eta 12:00.

**AKEZKO ERROTA ETA LOIDI ERROTA, Zizurkil (943 69 10 12 / kultura@zizurkil.eus)**

Akezko Errotara bisita, erromeria eta talo tailerra / Visita al molino Akezko Errota, romería y taller de talos. 11:00.

**2022.05.08**

**AGORREKIKO ERROTA, Aia (943 83 53 89 / iturraran@gipuzkoanatura.eus)**

Bisita gidatua / Visita guiada.

11:15 eu.

12:00 cas.

**SAN SALVADOR-BEKO ERROTA, Altzo (943 65 24 13 / kultura@altzo.eus)**

Bisita gidatua / Visita guiada. 10:15

**IERAREGIBIZKAR ERROTA, Amezketta (657 37 01 56 / pelozabalagunea@amezketa.eus)**

Kulturala - Turistikoa / Cultural - Turístico. 12:00

**AKIÑABEI ERROTA, Antzuola (638 187061 / iturbe55@gmail.com)**

Bisita gidatua / Visita guiada. 10:00 – 14:00

**IBARES ERROTA, Arama (943 88 07 39 / udala@arama.eus / errota00@gmail.com)**

Bisita gidatua / Visita guiada. 10:30 -12:00 ; 12:00 – 13:30 ; 16:00 – 17:30 ; 17:30 – 19:00

**URNIATEGI ERROTA, Asteasu (943 69 19 07 / udala@asteasu.eus)**

Hitzaldi-Aurkezpena / Charla-Presentación. Burdiña Taldeak berreskuratu zituen errotaren aztarnei buruzko xehetasunak herritarrei azalduko zaizkie. 10:45.

**LARRUNTZA ERROTA, Ataun (943 18 03 35 / barandiaran@gipuzkoanatura.eus)**

Bisita gidatu bereziak / Visita guiadas especiales. 10:00 – 14:00.

**EGURBIDEOLA ERROTA, Azkoitia (943 08 00 80 / azkoitia@azkoitia.eus)**

Bisita gidatua / Visita guiada 11h

**IGARAKO ERROTA, Azpeitia (943 81 24 48 / museo@ingurugiroetxea.org)**

Bisita gidatuak / Visita guiadas 11:00, 12:00 eta 13:00.

**IGARTZAKO ERROTA, Beasain (943 08 77 98 / igartza@beasain.eus)**

Talo tailerra / Taller de talos. 11h – 14h eta 18h – 20h.

**IGARATXO ETA SARASOLAKO ERROTAK, Beizama (943 81 63 38 / udala@beizama.eus)**

Bisita / Visita 11:00

**ANGIOZAR BAILARAKO ERROTAK, Bergara (943 77 91 00)**

Ibilaldi gidatua / Marcha guiada. 11:00.

**LASTURKO ERROTA, Deba (943 19 90 33 / info@lastur.eus)**

Kulturala/Cultural. Ate irekiak, talo jana, bazkaria eta erromeria. Egun guztian zehar.

**ARMAGINTZA MUSEOA, Eibar (943 70 84 46 / museoa@eibar.eus)**

Bisita gidatua / Visita guiada 10:30etatik 12:30tara.

**FANDERIAKO ERROTA, Errenteria (943 49 45 21 / turismoa@oarsoaldea.eus edo 690 72 02 64 / galemysfanderia@gmail.com)**

Bisita gidatua / Visita guiada 10:30

**ELORRETA-BEKOA ERROTA, Eskoriatza (943 71 54 53 / ibarraundi@eskoriatza)**

Bisita gidatua, tailerra eta animazioa / Visita guiada, taller y animación. 11:00 – 14:00.

**TXURINGAINEKO ERROTA, Larraul (634 28 93 27 / kultura@larraul.eus)**

Ate irekiak / Puertas abiertas. 11:00 eta 12:00.

**IGARALDE ERROTA, Legazpi (943 73 04 28 / mirandaola@lenbur.com)**

Bisita gidatua / Visita guiada. 11:00.

**ERROTATXO, Mutiloa (943 80 04 50 / udala@mutiloa.eus)**

Bisita gidatua / Visita guiada 10:00, 12:00, 16:00 eta 18:00.

**ARRASKUKO ERROTA – UGARTEKO ERROTA - IHURRITAKO ERROTA, Oiartzun (943 49 45 21 / turismoa@oarsoaldea.eus)**

Martxa gidatua / Marcha guiada. 9:45 – 13:30

**SAN MIGEL ERROTA, Oñati (943 78 34 53 / turismo@onati.eus)**

Bisita gidatua / Visita guiada. 11:00.

**IRAEGI ERROTA – LAPATZA TXIKIA (Errota Txikia) – GOIKO ERROTA (Lapatsa Errota), Ormaiztegi (688 65 74 55 / kultura@ormaitzegi.eus)**

Martxa gidatua / Marcha guiada. 10:00 – 13:00.

**TXOKOLATE MUSEOA-RAFA GORROTXATEGI, Tolosa (943 89 03 06 / info@rafagorrotxategi.eus)**

Bisita libre eta gidatua eta txokolate tailerra / Visita libre y guiada y taller de chocolate 11:00 eta 12:00.

**ANDATZA MENDIKO ERROTARRI-HARROBIAK, Usurbil (943 37 19 51 / [ingurumena@usurbil.eus](mailto:ingurumena@usurbil.eus))**

Errotarri harrobietara mendi martxa / Marcha de montaña a las canteras moleras. 9:00.

**INTXAUSTI ERROTA, Zegama (943 80 21 87 / [anduetza@gipuzkoanatura.eus](mailto:anduetza@gipuzkoanatura.eus))**

Bisita gidatua / Visita guiada. 11:00 - 12:00.

**LARRAONDO ZERRATEGI HIDRAULIKOA, Zerain (943 80 15 05 / [turismobulegoa@zerain.eus](mailto:turismobulegoa@zerain.eus))**

Bisita gidatua / Visita guiada 11:00

**MAREA ERROTA, Zumaia (943 86 50 25 / [euskaratxanpan@zumaia.eus](mailto:euskaratxanpan@zumaia.eus))**

Ekitaldia / Acto 12:00

**2022.05.15**

**ZUBIETA BASERRIA – OLAKO ERROTA - KANPAIN ERROTA, Zaldibia (943 16 03 38 / [kulturetxea@zaldibia.eus](mailto:kulturetxea@zaldibia.eus))**

Ate irekiak eta martxa / Puertas abiertas y marcha. 10:30 eta 16:30.

**2022.05.21**

**ERROTABERRI - IGERIBAR ERROTA – ERROTAETXE - AUNDITEGI ERROTA, Gabiria (943 88 07 34 / [udala@gabiria.eus](mailto:udala@gabiria.eus))**

Ibilaldi gidatua / Marcha guiada 10:00

**2022.05.28**

**IGARTUBEITI BASERRI-MUSEOA, Ezkio-Itsaso**

943 72 29 78 / [www.igartubeitibaserra.eus](http://www.igartubeitibaserra.eus)

Familientzako tailerra / Taller para familias 16:30 – 18:30